

Kudeaketari buruzko txostena
Informe de Gestión

Merkataritzako Foru Sozietateak / Sociedades Mercantiles Forales

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.**1. Sarrera**

2014. urtean, Garbiker, A.B. ren jarduera 2013. urteko Txostenean adierazitako jarduera egitarauaren arabera egin da.

2. Hhen kudeaketa eta tratamendua**2.1. Zabalgarbi, A.B.**

Zabalgarbi Planta. 2014an, Garbikerrek 135.570 tona eraman ditu guztira Zabalgarbi Plantara.

2006ko apirilaren 26an "Hhen Tratamenduarekiko Hitzarmen Osagarri eta Gehigarriari buruzko Argibideak" deritzon agiria izenpetu zen. 2013. urtean, agiri horren aplikazioak 89.443 euroko diru-sarrerak ekarri dizkio GARBIKERri.

Halaber, 2014an, GARBIKERrek 177.185 euro jaso ditu Zabalgarbira egindako Hhen ekarpenen ontzi-frakzioaren balioaren kontzeptuagatik, eta horietatik, 46258 euro itzuli zaizkie hondakinak zuzenean eramaten dituzten udalei.

2.2. Hondakindegia kontrolatuak

2014ko urtarrilaren 1etik, Jatako hondakindegia da isats-hondakindegia gisa erabiltzen den eta Garbiker enpresak kudeatzen duen jarduneko hondakindegia kontrolatu bakarra.

Igorreko hondakindegian, jarduera behin betiko amaitutzat jo da. Abenduaren 31ra arte, zisternagarraio bidez Galindoko HUARA egindako lixibatuen isurketa 31.964 m³-koa izan da.

Abenduaren 31ra arte, Jatako hondakindegian (Lemoiz) 33.580 tona hondakin tratatu dira, eta 27.746 m³ lixibiatu sortu dira guztira. Asteleheneretik larunbatera bitartean egiten da lan, eguneko ordutegian.

1. Introducción

Durante el año 2014, la actividad de Garbiker, S.A. se ha desarrollado según el programa de actuaciones reseñado en la Memoria del año 2013.

2. Gestión y Tratamiento de R.U.**2.1. Zabalgarbi, S.A.**

Planta de Zabalgarbi. En 2014 las toneladas totales aportadas por Garbiker a la Planta Zabalgarbi han sido 135.570 t.

Con fecha 26 de abril de 2006 se firmó un documento de "Aclaraciones al Contrato Adicional y Complementario al de Tratamiento de R.U.". La aplicación de éste último ha supuesto unos ingresos para GARBIKER de 89.443 euros en el año 2014.

Asimismo, GARBIKER ha ingresado en 2014 373.518 euros en concepto del valor de la fracción envase de los RU aportados a Zabalgarbi, que se han de revertir a los ayuntamientos que llevan directamente el residuo en un total de 201.055 euros.

2.2. Depósitos Controlados

Desde el 1 de enero de 2014, Jata es el único depósito controlado en activo gestionado por Garbiker que actúa como vertedero de cola.

En el vertedero de Igorre se ha dado por concluida su actividad, de manera permanente. El vertido de lixiviados mediante transporte con cisternas a la EDAR de Galindo, hasta el 31 de diciembre, ha supuesto 31.964 m³.

En el vertedero de Jata (Lemoiz) el residuo tratado hasta el 31 de diciembre ha sido de 33.580 t y los lixiviados producidos han supuesto 27.646 m³. Se trabaja en horario diurno, de lunes a sábados.



2014

Kudeaketari buruzko txostena
Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Gordexolako hondakindegian, 2002ko urtarrilaren erdialdetik aurrera utzi zitzaion hondakinak botatzeari. Ordutik aurrera, hondakinak Zallako Transferentzia Gunean uzten dira. Abenduaren 31ra arte, 949 tona m³ sortu dira.

2004ko uztailaren erdialde inguruan utzi zitzaion Amorotoko hondakindegian hondakinak botatzeari. Ordutik aurrera, hondakin horiek Berriatuko Transferentzia Gunean uzten dira. Abenduaren 31ra arte, 1.509 m³ lixibatu sortu dira.

2.3. Tratamendu Mekaniko Biologikorako Planta (T.M.B.)

2014ko urtarrilaren 10ean, TMB instalazioa jardunean hasi zen, abian jartzeko probak eta funtzionamenduko testa egin ondoren.

2014. urtean, instalazioak 121.699 tona jaso ditu guztira.

3. Transferentzia Guneak

Durango, Gernika, Zalla eta Berriatuko transferentzia guneetan bildutako HHak Zabalgarbiko balorizazio energetikorako plantara bideratu dira, eta, geldialdi teknikoak izan direnean, Igorreko biltegiara.

Durango. Durango, Berriz eta Zornotzako udalerriek eta Durangaldeko Mankomunitateak erabiltzen dute Durangoko Transferentzia Gunea. Abenduaren 31ra arte, Durangoko Transferentzia Gunetik 20.240 tona kudeatu dira. Gau eta goizeko txandetan lan egiten da, astelehenetik larunbatera bitartean.

Gernika. Abenduaren 31ra arte, Gernikako Transferentzia Gunetik 14.424 tona kudeatu dira. Gau eta goizeko txandetan lan egiten da, astelehenetik larunbatera bitartean.

Zalla. Abenduaren 31ra arte, Zallako Transferentzia Gunetik 9.890 tona kudeatu dira. Goizez lan egiten da, astelehenetik larunbatera.

En el vertedero de Gordexola se dejó de verter residuos a mediados de enero de 2002. Desde entonces se depositan los residuos en la Planta de Transferencia de Zalla. Los lixiviados producidos, hasta el 31 de diciembre, ha supuesto 949 m³.

En el vertedero de Amoroto se dejó de verter residuos a mediados de julio de 2004. Desde entonces se depositan los residuos en la Planta de Transferencia de Berriatua. Los lixiviados producidos, hasta el 31 de diciembre, ha supuesto 1.509 m³.

2.3. Planta de Tratamiento Mecánico Biológico (T.M.B.)

El 10 de enero de 2014 se dió comienzo a la actividad en la planta TMB, una vez finalizada las pruebas de puesta en marcha y el test de funcionamiento.

Las toneladas recibidas en la planta a lo largo de 2014 han sido 121.699 t

3. Plantas de Transferencia

El destino final del R.U. recogido en las plantas de transferencia de Durango, Gernika, Zalla y Berriatua ha sido la planta de valorización energética de Zabalgarbi y el Depósito de Igorre en situaciones de paradas técnicas.

Durango. Utilizan la Planta de Transferencia de Durango la Mancomunidad de Durango y los municipios de Durango, Berriz y Amorebieta. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado desde la Planta de Transferencia de Durango 20.836 t. Se trabaja en turno de noche y mañana, de lunes a sábado.

Gernika. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado desde la Planta de Transferencia de Gernika 14.430 t. Se trabaja en turno de mañana y noche, de lunes a sábado.

Zalla. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado desde la Planta de Transferencia de Zalla 9.813 t. Se trabaja en turno de mañana, de lunes a sábado.



2014

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRA
CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA

Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B. **Garbiker, S.A.**

Berriatua. Abenduaren 31ra arte, Berriatuko Transferentzia Gunetik 7.930 tona kudeatu dira. Goizez lan egiten da, astelehenetik igandera bitartean.

Igorre. 2014ko urtarrilaren 1ean, Igorreko transferentzia-gunea abian jarri zen, eta abenduaren 31ra arte 4.320 tona kudeatu ditu guztira.

4. Konpostegia

Abenduaren 31ra arte, 3.647 tona hondakin bildu dira. Igorritako konpost kopurua 670 tonakoa izan da.

5. Garbiguneak eta Etxeko Hondakinen Frakzioen Berrerabilera (Bazarreko eta Ehun-gaien berrerabilera)

2011ko azaroaren 30ean, "Bizkaiko Foru Aldundiaren (Ingurumen Saila) agindua GARBIKER, A.B. Foru Merkataritza Sozietateari, Garbigune sarearen bitartez Hiri Hondakinak Biltzeko Zerbitzua emateko, Bizkaiko Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren barruan" delakoa sinatu zen.

Agindu hori betetzeko GARBIKER enpresari esleitutako zenbatekoa 1.850.000 eurokoa izan zen 2014an, hau da, 2013. urtean emandako kopuru bera.

2012ko abenduaren 13an, GARBIKER, A.B. Sozietatearen bitartez Bizkaiko Foru Aldundiari Hondakinak Kudeatzeko Zerbitzua Emateko Agindu Markoa sinatu zen; horren arabera, 25 urteko indarraldia ezarri da.

2012ko abenduaren 26an, honako agiria sinatu zen:

Berriatua. Hasta el 31 de diciembre se han gestionado desde la Planta de Transferencia de Berriatua 7.807 t. Se trabaja en turno de mañana, de lunes a domingo.

Igorre .El 1 de enero de 2014 inició su actividad la planta de transferencia de Igorre gestionando hasta el 31 de diciembre un total de 4.320 t

4. Konpostegia

La cantidad de residuos recogidos hasta el 31 de diciembre ha sido de 3.647 t. La cantidad de compost expedido ha alcanzado las 670 toneladas.

5. Garbigunes y Reutilización de Fracciones de Residuo Domestico (Reutilización Bazar – Textil)

El 30 de Noviembre de 2011 se firmó la "Encomienda de la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Medio Ambiente) a la Sociedad Mercantil Foral GARBIKER, S.A. para la prestación del Servicio de Recogida de Residuos Urbanos a través de la red de Garbigunes, dentro del marco del Plan de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia.

El importe consignado a GARBIKER por el cumplimiento de esta encomienda para el año 2014 ha sido de 1.850.000 euros, mismo importe que para el 2013

Con fecha 13 de Diciembre de 2012 se firmó la Encomienda Marco para la Prestación del Servicio de Gestión de Residuos a la Diputación Foral de Bizkaia a través de la la Sociedad GARBIKER, S.A., que establece un periodo de vigencia de 25 años.

Con fecha 26 de diciembre de 2012 se firma el siguiente documento:



2014

Kudeaketari buruzko txostena
Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Bizkaiko Foru Aldundiaren (Ingurumen Saila) Kudeaketa Agindua GARBIKER, A.B. Foru Merkataritza Sozietateari, Berrerabiltzeko eta, hala badagokio, Birziklatzeko asmoz Hondakinen Gaikako Bilketa Zerbitzua emateko, GARBIKER, A.B.k kudeatutako Aldundiaren Garbigune Sarearen bitartez, eta bide publikoan kokatutako edukiontzien bitartez, betiere, neurri txikiko etxeko hondakinen frakzioen berrerabilerarako prestatzeko; bertan ezarritakoaren arabera, GARBIKERri 150.000 euro ordainduko zaizkio 2014an.

Garbikerrek kudeatutako 23 garbiguneetan 20 hondakin mota baino gehiago bildu dira: metalak, egurrak, papera eta kartoia, pilak, lerro zuria, lerro marroia, pneumatikoak, zaborrak, fluoreszenteak, karter-olioak, etxe-olioak, inausketa-hondarrak, ontziak, plastikoak, beira, tamaina handikoak, bateria-metagailuak, tonerrak, sakelako telefonoak, DVD-CDak, VHS-kasetak, jostailuak eta merkuriozko termometroak.

Basauri, Güeñes, Sestao, Erandio, Durango, Markina eta Gernikako garbiguneetan, halaber, pintura eta disolbatzaile solido edo likidoak eta aerosolak ere biltzen dira, bai eta pintura edo disolbatzaileak izan dituzten plastikozko eta metalezko ontziak ere.

Garbigune guztietan, jostailuen gaikako bilketarako eta, ondoren, berrerabiltzeko edukiontzia ere badaude.

2009az geroztik, berrerabil daitezkeen materialak biltzera zuzenduriko etxolak jarri dira Erandio, Getxo, Santurtzi, Barakaldo, Durango, Derio eta Gernikako garbiguneetan.

2014. urtean, 23 garbiguneek 252.090 erabiltzailerik eman diete zerbitzua (aurreko urtean baino %14 gutxiago), hau da, 978 pertsonari egunero. Era berean, 26.852 tona hondakin jaso dira, hau da, aurreko urtean baino %42 gutxiago.

Encomienda de Gestión de la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Medio Ambiente) a la Sociedad Mercantil Foral GARBIKER, S.A. para la prestación del Servicio de Recogida Selectiva de Residuos para su Reutilización y, en su caso reciclaje, a través de la Red de Garbigunes de la Diputación gestionados por GARBIKER, S.A., así como a través de contenedores ubicados en la vía pública para la preparación para la reutilización de las fracciones de Residuos Domésticos de pequeño tamaño, por el que se establece el pago a GARBIKER de un importe de 150.000 euros para el año 2014.

En los 23 Garbigunes gestionados por Garbiker se han recogido más de 20 tipos de residuos: metales, maderas, papel y cartón, pilas, línea blanca, línea marrón, neumáticos, escombros, fluorescentes, aceites de cárter, aceites domésticos, restos de podas, envases, plásticos, vidrio, voluminosos, baterías-acumuladores, tóners, teléfonos móviles, DVD-CDs, VHS-cassettes, juguetes y termómetros de mercurio.

En los Garbigunes de Basauri, Güeñes, Sestao, Erandio, Durango, Markina y Gernika se recogen, pinturas y disolventes sólidos o líquidos y aerosoles, así como los envases metálicos y de plástico que hayan contenido pintura o disolventes.

También hay habilitados contenedores para la recogida selectiva y posterior reutilización de juguetes en todos los garbigunes.

Desde 2009 hay habilitadas casetas destinadas a la recogida de materiales reutilizable en los garbigunes de Erandio, Getxo, Santurtzi, Barakaldo, Durango, Derio y Gernika.

A lo largo de 2014, los 23 garbigunes han dado servicio a 252.090 personas usuarias (un 14 % menos que el año anterior) , lo que equivale a unas 843 personas/día. Se han recibido 26.852 toneladas de residuos, lo que supone un descenso del 42% respecto al año anterior.



2014

Kudeaketari buruzko txostena
Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Lerro zuriko, lerro marroiko, pilen eta fluoreszenteen hondakin motak biltegitatu eta birziklategira heldu arteko garraiorako Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak Kudeatzeko Sistema Integratuekiko Lankidetzak Hitzarmenak indarrean mantentzen dira (fakturazioaren prezioa 150 €/tonakoa da lerro marroirako, eta 160 €/tonakoa, lerro zurirako).

Urtero egiten den bezeroen asebetetze-maila ezagutzeko inkestaren arabera, Garbigunearekiko asebetetze-maila orokorra 8,3 bikainean dago (10etik). Langileen adeitasuna, instalazioen garbitasuna, edukiontzien irisgarritasuna eta kokapena, eta garbiguneen kokapena nabarmendu dituzte.

AENORek berriro onartu du Zerbitzu Gutuna, hartutako konpromisoak beteta. Era berean, funtzionamendu araudia eguneratu da.

6. Ontzi arinen gaikako bilketa

2013an, edukiontzi horiak jarriz jarraitu da 113 udalerritan: 108 Bizkaikoak ziren eta 5 Arabakoak, eta 682.086 biztanle biltzen dituzte guztira. 2013ko abenduaren 31n, 3.779 edukiontzi zeuden ezarrita guztira: 244 lurpean, 273 3 m³-koak eta 3.269 3,5 m³-koak.

Apurtuta zeuden 120 edukiontzi eta erreta zeuden 80 edukiontzi ordezkatu dira. Udaletatik jasotako eskaerekin eta zerbitzuan antzemandako beharrezanekin bat etorritik, 35 edukiontzi berri instalatu dira.

Bilketa-zerbitzu mota honetan, ISO 14001 berritu da.

Abenduaren 31ra arte, 9.300.230 kg hondakin bildu dira guztira, 2013an baino %0,11 gehiago.

Se mantienen vigentes los Convenios de Colaboración con los Sistemas Integrados de Gestión de Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos de línea blanca, línea marrón, pilas y fluorescentes, para almacenamiento y transporte de este tipo de residuos hasta el reciclador (precio de facturación 150 €/tonelada para línea marrón y 160 €/tonelada para la línea blanca).

Según la encuesta que se realiza anualmente para medir el nivel de satisfacción de los clientes, el nivel de satisfacción general con respecto a los garbigunes es excelente (8,3 sobre 10). Entre otros aspectos, se destacan especialmente la amabilidad de los trabajadores, la limpieza de las instalaciones, la accesibilidad y la situación de los contenedores, así como la situación de los garbigunes.

La Carta de Servicios ha sido nuevamente aprobada por AENOR con el cumplimiento de los compromisos adquiridos. Asimismo, se ha actualizado el reglamento de funcionamiento.

6. Recogida selectiva de envases ligeros

Durante 2014 se ha continuado con la colocación de contenedores amarillos en 113 municipios, 108 vizcaínos y 5 alaveses, con una población total de 682.086 habitantes. A 31 de diciembre de 2014, había colocados 3.814 contenedores en total, 239 soterrados, 276 de 3 m³ y 3.299 de 3,5 m³.

Se han sustituido 120 contenedores rotos y 80 quemados. Se han instalado 35 nuevos contenedores de acuerdo con las solicitudes recibidas de los ayuntamientos y las necesidades detectadas en el servicio.

Se ha renovado la ISO 14001 en este servicio de recogida.

La cantidad de Residuos recogidos, hasta el 31 de diciembre, ha sido de 9.300.230 kg., un 0,11 % menos que en 2013.



2014

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRA
CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA

Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Garbiker arduratzen da edukiontzi horietan utzitako hondakinak bildu eta Zornotzako Ontzi Sailkategi Gunera garraiatzeaz.

2014an bildutako ontzien hondakinen batez bestekoari dagokionez, biztanle bakoitzeko kopurua 13,62 kg/urtekoa da, hau da, 2013koa baino %0.22 gehiago.

7. Hondakin geldo eta ez arriskutsuen tratamendua

Berrizko hondakindegian 2008ko urtarrilean utzi zitzaion hondakinak botatzeari.

2010eko abuztuan, Eusko Jaurlaritzak zigilatutako proiektuaren EIB-Erabateko Ingurumen Baimena eman zuen, eta behin lanen lizitazioa eta esleipena eginda, lanak 2011ko martxoan hasi ziren. Lanak 2012ko uztailean eman ziren amaitutzat.

8. Aholkularitza udalei eta erakunde publikoei.

Hainbat kontsulta bideratu dira, bilerak egin dira eta bisitak egin dira udal eta herri erakundeetako teknikariek eta gainerako langileekin.

9. Ingurumen hezkuntzako eta sentsibilizaziorako jarduerak

Ikastetxeen, Ikastolen, Unibertsitateen, Erakundeen eta abarren bisitak antolatu dira HHen hondakindegia kontrolatuak eta Garbiguneak ikustera joan daitezzen, eta, horrenbestez, ikasleak euren irakasleekin izan ditugu bisitari.

Abenduaren 31ra arte, Bizkaiko hezkuntza-zentroek 56 bisita egin dituzte, eta bisita horietan 1.521 pertsonak hartu dute parte guztira.

Horrez gain, Artigasko hondakindegiko Ingurumeneko Ikasgelan 40 bisita izan dira, eta 1.561 pertsonak ikusi dute guztira.

Garbiker es la encargada de la recogida y transporte hasta la Planta Clasificadora de Envases de Amorebieta de los residuos depositados en estos contenedores.

La cantidad media de residuos de envases recogida durante 2014 alcanza por habitante los 13,62 kg/año, lo que supone un descenso del 0,22% respecto a 2013.

7. Tratamiento de los Residuos Inertes y no peligrosos

En el Depósito de Berriz se dejó de verter residuos en enero de 2008.

Emitida en agosto de 2010 por parte del Gobierno Vasco la AAI-Autorización Ambiental Integrada del proyecto de sellado y una vez procedido a la licitación y adjudicación de las obras, éstas se iniciaron en marzo de 2011. Las obras se dieron por finalizadas en julio de 2012.

8. Asesoramiento a Municipios y Organismos Públicos

Se han resuelto consultas, mantenido reuniones y realizado visitas con técnicos y demás personal de municipios y organismos públicos.

9. Actividades de Sensibilización y Educación Ambiental

Se han programado visitas de Colegios, Ikastolas, Universidades, Instituciones, etc. a los Depósitos Controlados de R.U. y a los Garbigunes, con presencia de alumnos acompañados de sus profesores.

Hasta el 31 de diciembre se han realizado 56 visitas por parte de Centros educativos de Bizkaia con un total de 1.521 personas.

A éstas habría que añadir las 40 visitas que se han efectuado al Aula Medioambiental del vertedero de Artigas con un total de 1.561 personas.



2014

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRA
CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA

Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

10. Bizkaiko Zabor Berziklategia, Sozietate Mugatua

Sozietate hau 1997ko maiatzaren 22an eratu zen; data horretan, Trienekens Pais Vasco (%60) eta Garbiker (%40) enpresek partaidetutakoa zen. 2006an, GARBIKERrek Sozietatearen Kapitalaren %10 eskuratu zuen, eta, beraz, une honetan akzioen %50 bere esku dago.

B.Z.B.,S.L.ren enpresa xedea Zornotzan duen Gunean Ontzi Arinen Gaikako Bilketatik eratorritako materialen sailkapena eta banaketa egitea da. Sozietate horretan, Garbikerrek Bizkaiko 108 udalerritan eta Arabako 5 udalerritan bildutako ontziak sailkatu dira, bai eta Bilboko eta Getxoko udaletan bildutakoak eta udal batzuek (Portugalete, Barakaldo Audio eta Galdakao) egiten duten bilketa pneumatikoetakoa ere.

Abenduaren 31ra arte, 15.581.930 kg hondakin tratatu dira, hots, 2013 urtean baino %1,63 gehiago.

11. Berziklatu, Sozietate Mugatua

2005eko abenduaren 2an, %50eko partaidetzaz, Garbikerrek tamaina handiko hondakinen birziklapena egiteaz gain bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzea eta gizarteratzea lortzea ere xede dituen Berziklatu enpresa mistoa sortu zuen. 2009an, %25eko partaidetza Bizkaiko Foru Aldundiari laga zitzaion.

Garbikerrek birziklapen planta bat eraiki du Ortuellan, eta birrinketa linea bat eta makineria mugikorra ere eskuratu ditu. Hori guztia, Berziklatu, M.B.ri. laga zaio 25 urterako.

Birziklapen planta 2007ko urriaren 9an inauguratu zen.

2014. urtean, 13.595 tona kudeatu dira.

Tratamenduaren ehunekoak honako hauek izan dira:

10. Bizkaiko Zabor Berziklategia, Sociedad Limitada

Esta Sociedad se constituyó el 22 de mayo de 1997, estando participada a esa fecha por Trienekens País Vasco (60%) y Garbiker (40%). En 2006 GARBIKER adquirió el 10% del Capital Social, de tal manera que en este momento posee el 50% de las acciones.

El objeto social de B.Z.B., S.L. es la separación y clasificación del material procedente de la Recogida Selectiva de Envases Ligeros en la Planta que tiene en Amorebieta, en la cual se han clasificado los envases recogidos por Garbiker en 108 municipios vizcaínos y 5 alaveses, así como los recogidos por los ayuntamientos de Bilbao y Getxo y los recogidos por ayuntamientos con recogida neumática (Portugalete, Barakaldo, Llodio y Galdakao).

Hasta el 31 de diciembre se han tratado 15.591.930 kg de residuos, con un aumento respecto a 2013 del 0,07%.

111. Berziklatu, Sociedad Limitada

Garbiker, constituyó, con una participación del 50%, el 2 de diciembre de 2005 la empresa mixta Berziklatu, cuyo objeto social es el reciclaje de residuos voluminosos y la inserción sociolaboral de personas en riesgo de exclusión social. En 2009 se cedió un 25% de participación a la Diputación Foral de Bizkaia

Garbiker construyó la planta de reciclaje, situada en Ortuella y adquirido la línea de trituración y maquinaria móvil. Todo ello ha sido cedido por 25 años a Berziklatu S.L.

La planta de reciclaje se inauguró el 9 de octubre de 2007.

Durante 2014 se han gestionado 13.595 toneladas.

Los porcentajes de tratamiento han sido los siguientes:



2014

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRA
CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA

Kudeaketari buruzko txostena Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Berrerabilera / Reutilización	%0,56
Birziklapena / Reciclaje	%12
Baterako sorkuntza / Cogeneración	%76.44
Balorizazioa / Valorización	%11

12. Beste jarduera batzuk

Goian azaldutako jardueren osagarri gisa, beste batzuk ere antolatu dira. Nabarmenenak honako hauek dira:

HHen eta hondakin geldoen Hondakindegietan, Transferentzia guneetan eta Garbiguneetan hobekuntza lanen eta beste zenbait proiekturen betearazpenaren jarraipena.

Proiektu eta Lanak Zuzentzea:

Bisita teknikoak Birziklapeneko Instalazio eta Plantetara.

Garbikerrek herri lanetarako, laguntza teknikorako, horniduretarako eta ibilgailu/makineria eskuratzeko lehiaketa publikoen deialdiak egitean beharrezkoak diren baldintza-orri teknikoak idaztea. Esleipen Txostenak idaztea.

Hondakindegia kontrolatuen eta Hondakin birziklapenaren kudeaketari buruzko zenbait Kongresu, Jardunaldi eta Azokatarara joan gara.

13. Garbikerren bulego nagusia

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumeneko Foru Sailak berariaz aginduta, "Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri Hondakin Sorkuntzaren Behatokia" egin da.

Garbikerren web orrialdearen (garbiker.bizkaia.net) eguneratze lanarekin jarraitu dugu.

Garbikerreko langileek egindako lanen gaineko "Laneko Arriskuen Ebaluazioa" delakoan sakondu da. Halaber, prebentziorako dugun kanpo zerbitzuari eutsi zaio.

12. Otras Actividades

Se han complementado las actividades reseñadas anteriormente con otras, entre las que destacan las siguientes:

Seguimiento de la ejecución de obras de mejora en Depósitos de R.U., Plantas de Transferencia y Garbigunes y de diversos proyectos.

Dirección de Proyectos y Obras:

Visitas técnicas a Instalaciones y Plantas de Reciclaje.

Redacción de los pliegos técnicos necesarios para convocar los concursos públicos de obra, asistencia técnica, adquisición de suministro, vehículos y maquinaria, convocados por Garbiker. Redacción de los Informes de adjudicación.

Se ha asistido a diversos Congresos, Jornadas y Ferias relativas a la gestión de Depósitos controlados y Reciclaje de residuos.

13. Oficina Central de Garbiker

Se ha realizado el "Observatorio de Generación de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia" por encomienda del Dpto. de Medio Ambiente de la D.F.B.

Se ha continuado con la renovación de la página web de Garbiker: garbiker.bizkaia.net.

Se ha profundizado en la "Evaluación de Riesgos Laborales" de los diferentes trabajos desarrollados por el personal de Garbiker. Asimismo se ha mantenido el servicio externo de prevención.

Kudeaketari buruzko txostena
Informe de Gestión

Merkataritzako Foru Sozietateak / Sociedades Mercantiles Forales

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

Garbikerrek kudeatutako Hondakindegia aktiboetarako Ingurumen-erantzukizunerako polizak mantendu dira.

14. 2015rako helburuak eta egingo diren ekintzak

Garbikerren jarduna Bizkaiko 2005-2016 Hiri Hondakin II. Kudeaketa Plan Integralaren garapenean Ingurumeneko Foru Sailarekin elkarlanean aritzera bideratuta egongo da, eta arlo horretan zeregin garrantzitsua izango du.

Ondoko garbiguneak kudeatuko dira: Basauri, Getxo, Zalla, Derio, Markina, Gernika, Amorebieta, Gautegiz Arteaga, Santurtzi, Sopela, Mungia, Karrantza, Erandio, Güenes, Amoroto, Durango, Sestao, Barakaldo, Bermeo, Muskiz, Orduña, Bakio eta Igorre. Aurrera jarraituko da Zerbitzu Gutunaren ezarpenarekin, asebetetzeari buruzko inkestekin eta publizitate kanpaineekin, betiere, beharrezkoa den egiaztagiria lortzeko asmoz.

Bizkaian, 3. edukiontzia (ontziak eta bilgarriak) bilketa egingo da Bizkaiko 108 udalerritan eta Arabako 5 udalerritan; guztira, 682.086 biztanleri emango zaie zerbitzua, gutxi gorabehera.

2011ko martxoaren 1ean inauguratutako hondakin organikoak konpostatzeko Planta kudeatuko da.

TMB Tratamendu Mekaniko Biologikorako Plantari dagokionez, 2015an ustiapen-fasean egongo da jardunean.

"Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri Hondakin Sorkuntzarako Behatokia" egingo da, BFaren Ingurumen Sailak horrela eskatuta.

Ondokoak kudeatu eta ustiatuko dira: Uribe (Jata) hondakindegia kontrolatua, eta Durango, Gernika, Zalla, Berriatua eta Igorreko transferentzia guneak.

Se han mantenido las pólizas de Responsabilidad Medioambiental para los Depósitos en activo gestionados por Garbiker.

14. Objetivos y acciones a realizar en el año 2015

La actuación de Garbiker estará orientada a la colaboración con el Departamento Foral de Medio Ambiente en el desarrollo del II Plan Integral de Gestión de R.U. de Bizkaia 2005-2016, en el cual desempeñará un papel de referencia.

Se gestionarán los Garbigunes de Basauri, Getxo, Zalla, Derio, Markina, Gernika, Amorebieta, Gautegiz-Arteaga, Santurtzi, Sopelana, Mungia, Carranza, Erandio, Güenes, Amoroto, Durango, Sestao, Barakaldo, Bermeo, Muskiz, Orduña, Bakio e Igorre. Se continuará con la implantación de la "Carta de Servicios", encuestas de satisfacción y campañas publicitarias, de cara a obtener la acreditación correspondiente.

Se efectuará la recogida en Bizkaia del 3^{er} contenedor (envases y embalajes) en 108 municipios vizcaínos y 5 alaveses, dando servicio a unos 682.086 habitantes.

Se gestionará la Planta de compostaje de residuos orgánicos, inaugurada el 1 de marzo de 2011.

Con respecto a la Planta de Tratamiento Mecánico-Biológico, TMB, durante 2015 la planta estará operativa en fase de explotación.

Se realizará el "Observatorio de Generación de Residuos Urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia" por encomienda del Dpto. de Medio Ambiente de la D.F.B.

Se realizará la gestión y explotación del depósito Controlado de Uribe (Jata), las Plantas de Transferencia de Durango, Gernika, Zalla, Berriatua e Igorre.



2014

Kudeaketari buruzko txostena
Informe de Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

Garbiker, A.B.
Garbiker, S.A.

2015. urtean, Garbikerrek 80,74 euro/tonako (BEZ gabe) tarifa edo kanona fakturatuko die udalerreri eta mankomunitateei, HHen tratamenduagatik. KONPOSTEGIRA joan behar duten hondakin konposagarrien kanona edo tarifa 46,33 euro/tonakoa izango da (BEZ gabe), irteera hondakinena -OUTPUT- 25,17 euro/tonakoa. Era berean, Gernikako transferentzia gunean jaso eta BERZIKLATUra eraman beharreko tamaina handiko hondakinena 48,07 euro/tonakoa izango da (BEZ gabe). Tamaina txikiko etxeko hondakinei dagokien tarifa -Bazarreko eta Ehun-gaien berrerabilera- 65,45 euro/tonakoa izango da (BEZ gabe).

Gordexolako, Amorotoko eta Berrizko hondakindegia kontrolatuak mantentzeko lanekin aurrera jarraituko da, abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak hondakindegia itxi eta hurrengo 30 urteetan zehar mantenimendu lanak egiten jarraitzera behartzen baitu.

Hondakindegia guztietan egonkortasun eta ingurumen kontrolak eginez jarraituko dugu.

Aholkularitza udalei eta erakunde publikoei.

Programatutako bisitak Hondakindegia, Garbigune eta Transferentzia Guneetara.

Garbikerren jarduera-eremuarekin zerikusia duten Kongresu eta Azoketara joatea.

2015. urtean, Zabalgardi, s.a. ren jabetzakoa den HHen Balorizazio Energetikoko Plantak etengabe lanean jarraituko du, eta, horren ondorioz, Garbikerren eta Zabalgardiaren artean 2001eko ekainaren 15ean izenpetutako kontratuaz gain, 2004ko abuztuaren 24an izenpetutako kontratu gehigarria eta 2006ko apirilko Argibideetarako agiria ere aplikatuko dira.

Garbiker fakturará en el año 2015 a los municipios y mancomunidades una tarifa o canon de tratamiento de R.U. de 80,74 euros/t (I.V.A. no incluido). La tarifa o canon de tratamiento de Residuos compostables con destino a KONPOSTEGIA será de 46,33 euros/t (I.V.A. no incluido) y de 25,17 euros/t (I.V.A. no incluido) la de Residuos de salida -OUTPUT-, y la de los Residuos Voluminosos, recogidos en la planta de transferencia de Gernika, y con destino a BERZIKLATU, será de 48,07 euros/t (I.V.A. no incluido). La tarifa correspondiente a los Residuos domésticos de pequeño tamaño - Reutilización Bazar y Textil - será de 65,45 euros/t (I.V.A. no incluido).

Se seguirán realizando las labores de mantenimiento en los Depósitos controlados de Gordexola, Amoroto y Berriz de acuerdo al R.D. 1481/2001 de 27 de diciembre, que obliga a realizar labores de mantenimiento durante los siguientes 30 años a la clausura de los Depósitos.

Se continuará con los controles de estabilidad y medioambientales en todos los Vertederos.

Asesoramiento a Municipios y Organismos Públicos.

Visitas programadas a Depósitos, Garbigunes y Plantas de Transferencia.

Asistencia a Congresos y Ferias relacionadas con la actividad de Garbiker.

En 2015 continuará en servicio de forma continuada la Planta de Valorización Energética de R.U. propiedad de Zabalgardi, s.a., y, como consecuencia, se aplicará tanto el contrato suscrito entre Garbiker y Zabalgardi el 15 de junio de 2001, como el contrato adicional firmado el 24 de agosto de 2004 y el documento de Aclaraciones de abril de 2006.